



ELKANO, 1. mundu bira

Ezagutu, balioa eman eta transmititzeko

GEOGRAFIA eta HISTORIA

3.DBH

ELKANO, 1. mundu bira

Ezagutu, balioa eman eta transmititzeko

Ikasgaia: GEOGRAFIA eta HISTORIA

Gaia: Egungo gizartearen oinarri historikoak.

Amerikaren aurkikuntza, esplorazioa eta konkista. Europarrek ezagutzen zuten mundua zabaltzea. Horren kausak. Juan Sebastian Elkano eta lehen mundu bira.

Maila: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. maila.

Saioak: 6-9 saio. (gutxi gorabeherakoa)

Proposamenaren justifikazioa:

Gertakizun historikoek baldintzatu egiten dute gizartearen noranzkoa eta etorkizuna, baita bertako kide aktibo izango diren datozen belaunaldiena ere. Horrez gain, belaunaldi horiek atzera begiratu behar dute bizi behar duten une historiko eta kulturalaren jatorriaz eta kausez jabetzeko eta beren sustraiak ezagutzeko.

Egoera arazotsua:

A. Testuingurua:

Gertakari eta pertsonaia handiak daude, eta data, istorio eta izen horiek historian jasota gelditu dira. Zentzua eta azalpena ematen diote gure egungo gizarteari, eta, bertako kideak garenez, gertakari horiek arakatzeak, ikertzeak, haien kausak bilatzeak eta gertatutakoaren zergatia, modu eta ondorioak ezagutzeak gizartearen egoera ulertarazten digu, baita gu kide garen kultura ere. Are gehiago gertakari horien kritikari eta igorleak bihurtzen bagara.

B. Arazoa:

XV.-XVI. mendeak. Erdi Aroan bizimodua eta pentsaera ia ez zen aldatu. Pentsatzeko modua aldarazi egin zuten, ordea, feudalismoaren gainbeherak ekarritako XIV. mendeko krisi luzeak, borroka sozialek, izurriak, Ehun Urteko Gerrak eta abarrek. Erdi Aroko teozentrismoak bide eman zion antropozentrismoari, eta "gizona" jo zen unibertsoaren erdigunetzat.

Hori dela eta, batzuek atzera begiratu zuen, Antzinarora, antzinako Greziara eta Erromara eta haien kultura klasikora. Beste batzuk, aldiz, etorkizuna aldatzeko saiakeran ziharduten. Kristobal Kolonek Indietara heldu nahi izan zuen ordura arteko bidearen alderantzizkoa eginez, Leonardo Da Vinci tramankulu bitxiak eraiki zituen hegan egin nahian, eta Galileok Pisako dorreko makurretik objektuak jaurtitzen zituen hainbat teoria fisiko eraikitzeko.

Berpizkundera heldu berri zen.

Gertakari eta izen ugari gelditu ziren historian jasota, haien garrantziagatik eta lorpenengatik. Beste asko, ordea, ahaztu egin ditugu eta ez zaie merezi duten garrantzirik eta hedapenik eman.

Horrek kezkatzen eta arduratzen gaitu. Guztiok entzun dugu Amerikaren aurkikuntzaz, eta gai gara gertakizun hori Kristobal Kolonekin lotzeko. Ba al dakigu, ordea, zein izan zen lehen mundu bira, eta nolako garrantzia izan zuen gertakari horretan Juan Sebastian Elkanok?

Historialariek eta Getaria herriak aldarrikatu egiten dute gertakari historiko horri eta Elkanoren garrantziari aitortza egin dakion, hain gertu baitago gugandik kulturalki eta geografikoki, eta, paradoxa bada ere, oso ezezaguna eta urrunekoa baita.

C. Helburua:

Ikerketa lan bat egitea gertakari historiko batzuen eta bertako pertsonaia baten garrantziaren inguruan.

Hainbat informazio iturriren bitartez ikerketa egitea eta informazioa bilatzea, jasotako informazioa kontrastatzea, irizpide kritikoz gertakariak baloratzea, lan bat egitea informazio egokiarekin eta ateratako ondorioekin. Jazotakoari balioa ematea. Jasotako ezagutza beste belaunaldi batzuetara helaraztea eta hedatzea.

Zeregina:

Taldeka eta elkarlanean ikerketa, hedapen eta transmisio lan bat egitea "lehen mundu birari" eta "Juan Sebastian Elkanori" buruz.

Hainbat informazio iturri erabiltzea. Jasotako informazioa kontrastatzea. Informazioa lantzea. Gertakarien inguruan hausnartzea, eztabaidatzea eta horiek baloratzea, ondorioak ateratzea.

Informazio landua aurkeztea LHko 6.mailakoei. Haien curriculumak aipatu egiten ditu Elkano eta lehen mundu bira. Ahozko aurkezpen bat izango da, bideoz, aurkezpenez, horma irudiz eta abarrez lagundua, elkarlaneko taldearen iritzira, eta taldeak berak prestatutako pista jolasen bat edo galdera-erantzun jolasen batekin batera egingo da ("Altxorraren bila", "kahoot", "gymkana" eta abar), informazioa modu entretenigarrian eta ludikoan transmititzeko eta hedatzeko.

Oinarrizko gaitasunak:

A. Zeharkakoak:

1. Ahozko komunikaziorako, ahozkoa ez den komunikaziorako eta komunikazio digitalerako gaitasuna

Ahozko komunikazioa, ahozkoa ez dena eta digitala elkarren osagarri gisa erabiltzea, modu eraginkor eta egokian komunikatzeko, egoera pertsonaletan, sozialetan eta akademikoetan.

1. Ahoz eta idatziz jariakortasunez, autonomiaz, sormenez eta eraginkortasunez komunikatzea.
2. Informazioa ahozkoak ez diren kodeetan ulertzea eta erabiltzea, jariakortasunez, autonomiaz, sormenez eta eraginkortasunez.
3. Modu kreatiboan, kritikoa, eraginkorrean eta seguruan erabiltzea informazio eta komunikazio teknologiak, ikasteko, aisiarako, inklusiorako eta gizartean parte hartzeko.

2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasuna

Ikasteko eta laneko ohiturak, ikasteko estrategiak eta pentsamendu zorrotza edukitzea, ikasitakoa beste testuinguru eta egoera batzuetara mugituz eta eramanez, norberaren ikasketa modu autonomoan antolatu ahal izateko.

1. Hainbat iturritako informazioa (inprimatuak, ahozkoak, ikus-entzunezkoak, digitalak eta abar) bilatzea, hautatzea, biltzea eta berreskuratzea.
2. Informazioa ulertzea eta buruz ikastea (pentsamendu analitikoa).
3. Informazioa interpretatzea eta ebaluatzea (pentsamendu kritikoa)
4. Ideiak sortzea eta hautatzea (pentsamendu kreatiboa).
5. Baliabide kognitiboak modu estrategikoan erabiltzea, ikasitakoa beste egoera batzuetara mugituz eta eramanez.

3. Elkarbizitzarako gaitasuna

Elkarrekikotasun irizpidez parte hartzea pertsonen arteko, taldeko eta komunitateko egoeretan, eta besteentzat norberarentzat aitortutako eskubide eta betebeharrak guztiak aitortzea, norberaren eta guztion onerako.

1. Norberaren eta besteen desira asetzea bateratuz komunikatzea, modu asertiboan norberaren sentimenduak, pentsamenduak eta desirak adieraziz, eta, aldi berean, aktiboki entzunez eta gainerakoen sentimenduak, pentsamenduak eta desirak kontuan hartuz.
2. Taldean ikastea eta lan egitea, erantzukizunak hartuz eta elkarlanean jokatuz helburu komuna duten zereginetan, askotariko pertsonak eta iritziak egoteak ematen duen aberastasuna aitortuz.
3. Giza eskubideetatik eratorritako printzipio etikoei jarraituz jokatzea, baita elkarbizitzarako oinarrizko konbentzio sozialetatik eratorritako arau sozialen arabera ere.
4. Gatazkei irtenbidea topatzea, elkarriketaren eta negoziazioaren bitartez.

4. Ekintzailtzako inizatibarako eta izaerarako gaitasuna

Iniziatiba edukitzea, ekintzailtza prozesu bat kudeatuz, erabakitasunez eta eraginkortasunez, askotariko testuinguru eta egoera pertsonal, sozial, akademiko eta laboraletan, ideiak ekintza bihurtu ahal izateko.

1. Ideia edo proiektua sortzea eta/edo onartzea, proiektuaren plana egitea eta haren bideragarritasuna aztertzea.
2. Planean jasotako ekintzak egikaritzea eta doikuntzak egitea beharrezkoa denean.
3. Egindako ekintzak ebaluatzea, komunikatzea eta hobetzeko proposamenak egitea.

5. Izaten ikasteko gaitasuna

Hausnartzea bizitzako hainbat esparru eta egoeratan norberari sortutako sentimenduen, pentsamenduen eta ekintzen inguruan, eta horiek indartzea edo doitzea, horien balorazioaren arabera, horrela, etengabeko hobekuntzaren bitartez, pertsonaren alderdi guztietako errealizaziorantz jotzeko.

1. Ahozko lengoaia, ahozkoa ez dena eta digitala autoerregulatzea.
2. Ikasketa prozesuak eta norberaren estilo kognitiboa autoerregulatzea.
3. Jokabide sozial eta morala autoerregulatzea.
4. Motibazioa eta borondatea autoerregulatzea, norberaren erabakiak eta betebeharrak betetzeko.
5. Gorputzaren funtzioak, osasuna, norberaren ongizatea eta gorputzaren irudia autoerregulatzea.
6. Norberaren emozioak autoerregulatzea.
7. Autokontzeptu eta autoestimu positiboak eta errealistak edukitzea.
8. Erabakiak autonomiaz hartzea eta erabakien eta betebeharren erantzukizuna hartzea.

B. Diziplinakoak:

1. Komunikazio linguistiko eta literariorako gaitasuna

Ahozko eta idatzizko testuak erabiltzea, euskaraz, gaztelaniaz eta atzerriko hizkuntza batean edo gehiagotan, modu egokian, eraginkorrean eta hizkuntza aniztasunarekin errespetua izanez, bizitzako hainbat alderdiri dagozkion egoeretan.

1. Jarrera kritikoz ulertzea eta baloratzea ahozko testuak, idatziak eta ikus-entzunezkoak, bai analogikoak bai digitalak, askotariko esparruetakoak, helburu pertsonal, sozial edo akademikoak lortzeko.
2. Ahozko, idatzizko eta ikus-entzunezko testuak sortzea, esparru pertsonaletakoak, sozialetakoak edo akademikoetakoak, eraginkortasunez hainbat komunikazio beharri erantzuteko.
3. Ahozko eta idatzizko testuak ulertzean eta sortzean aplikatzea hizkuntzak erabiltzeko araei eta sistemari buruzko ezagutzak, modu egokian eta eraginkortasunez komunikatzeko.
4. Gure gizartean dagoen dibertsitate linguistikoa eta kulturala aitortzea eta baloratzea, dibertsitate horrekiko jarrera positiboa izateko.

2. Gaitasun sozial eta zibikoa

Norbera, norbera kide den taldea eta bizi den mundua ezagutzea eta ulertzea, gizarte zientzietako ezagutza eskuratuz, modu kritikoan interpretatuz eta erabiliz, baita zientzia horien berezko metodologiak eta prozedurak erabiliz ere, modu autonomoan jokatzeko, herritar gisa dugun erantzukizunetik abiatuta, bizitzako ohiko egoeretan, gizarte guztiz demokratiko, solidario, inklusibo eta askotarikoa garatzen laguntzeko.

1. Norbera identifikatzea norbanako gisa, besteekin bizi dena gizartean, haiekin antolatzen eta haiei laguntzen askotariko taldeetan, hainbat helbururekin, hainbat eskalatan (familiakoa, eskolakoa, bizilagunena, udalerrikoa, nazionala eta abar).

2. Norbera bizi den gizartea ezagutzea, historian izan duen eta orain duen osaerari, antolaketari eta funtzionamenduari dagokionez, baita hura kokatuta dagoen eta haren antolaketaren oinarri den lurraldeari dagokionez ere, gizartearen iraganaz jakitun egiten eta gaitasuna garatuz gizakion jardunak lurralde horretan sortzen dituen arazoei lotuta modu positiboan jokatzeko.

3. Bere inguruaz kontzientea den herritartasuna, herritartasun konprometitu eta solidarioa, norbere gain hartzea eta horretan parte hartzea, gizarte garaikideak eta egungo euskal gizartea hobetzen eta jasangarri egiten lagunduko duena, haien askotarikotasun sozial eta kulturala baloratuz eta naturarekin, norberarekin eta besteekin harremanean egoteko modu berriak bilatuz.

4. Giza eskubideak erabiltzea bizitza pertsonal eta sozialeko ekintzei eta egoerei buruzko judizioak sortzeko erreferentzia unibertsal gisa, eta herritar moduan eskubideak erabiltzea eta betebeharrak norbere gain hartzea; parte hartzeko, errespetuzko, justizia sozialeko eta elkartasuneko jarrerak garatzea, balioetan oinarritutako demokrazia eraginkorra sortzeko.

5. Elkarbizitzan tentsioak eta gatazkak izan dituzten eta bizi dituzten hainbat talde sozial interaktibok denboran zehar izandako osaera ezagutzea, iraganaren kontzientzia kritikoa abiapuntu hartuta etorkizunean horrelakoak ebazteko prozedura baketsu eta demokratikoak ezagutzeko. 6. Beharrezko ezagutza, trebeziak eta jarrerak eskuratzea, ulertzeko zein den norbera bizi den munduaren egoera, bai alderdi fisikoei bai sozialei eta kulturei dagokienez; zeintzuk iraganeko esperientzia kolektiboak eta gaur egungoak; eta zein gizarteko bizitzaren espazio fisikoa, norbere burua bertako eragile aktibo gisa kokatzen laguntzeko.

1. Norbera pertsona bakar eta konplexu gisa onartzea, norberaren dohainak eta mugak identifikatuz, norbera euskal gizartearen kide gisa identifikatzen dituen ezaugarri kulturalen jakitun izanez, eta hori beste talde batzuen parte izatearekin bateragarritzat jotzea, ondo definitutako eta onartutako nortasun aktibo eta konprometitutik gizartea hobetzen parte hartzeko.

2. Hainbat eskalatan (Euskal Herria, Iberiar penintsula, Europa, mundua) identifikatzea eta kokatzea inguru fisikoaren oinarriko elementu bereizgarriak, eta haien arteko interakzioak behatzea, gizakion bizitza mugatzen duten modua ulertzeko eta, gainera, ulertzeko nola eraldatzen dituen gizakion eraginak, eta, horrekin, sortzen diren arazo sozial eta ingurumenekoekiko kontzientzia sentikorra sortzea.

3. Euskal Herriarentzako gertakizun eta prozesu historiko garrantzitsuenak identifikatzea, munduaren esparrutik gertuen dagoen esparrutik, denboran eta espazioan horiek kokatuz, gizateriaren bilakaera historikoaren ikuspegi berezkoa eta globala eskuratzeko, baita aldaketak eragiteko norberaren gaitasunaren inguruko kontzientzia kritikoa ere.

4. Datu historikoak biltzea, denboran orientatzeko kategoriak (iragana, oraina eta etorkizuna), denborari lotutako posizioak (segida, aldiberekotasuna, diakronia, sinkronia), iraupenak (faktikoa; koiunturala; egiturazkoa; iraupen laburrekoa, ertainekoa edo luzekoa); eta denboraren neurriak (denbora unitateak, denbora eta kronologia historikoa) erabiliz gizartearen bilakaera historikoa antolatzeke eta sintetizatzeke.

5. Ondare natural, kultural, linguistiko, artistiko, historiko eta soziala, berezkoa eta besteena baloratzea eta errespetatzea, hura estimatzea norbanakoek eta herriek beren nortasunerako duten eskubide gisa eta gozamen iturri moduan; hori defendatzeko, kontserbatzeko eta hobetzeko erantzukizuna norbere gain hartzea, norbanakoaren garapena eta gizateriaren garapen kolektibotik laguntzeko.

6. Gizarte demokratikoen antolaketako egiturak eta funtzionamendua ezagutzea, eta haien oinarri diren funtsezko balioak eta printzipioak identifikatzea; giza eskubideak erabiliz bizitza pertsonal eta sozialeko ekintzei eta egoerei buruzko judizioak sortzeko erreferentzia unibertsal gisa; solidarioa izanez eskubideak edo beharrezko baliabide ekonomikoak kendu dizkieten herriekin, talde sozialekin eta pertsonekin; jarrera eta egoera bidegabeak eta bazterkeriakoak salatuz, parte-hartze kontzientea, arduratsua eta kritikoa sustatzeko.

7. Europar Batasuneko erakundearen antolaketa politikoa eta funtzionamendua ezagutzea, horien oinarriak diren funtsezko balio eta printzipioak identifikatzea eta haren gabeziekin jarrera kritikoa eta arrazoitua edukitzea, ulertzeko Europar Batasuna Europako hainbat herri, estatu eta eskualderen harreman eta partaidetza esparrua dela, eta haren funtzionamendua hobetzeko.

8. Egungo gizartearen arazoak ezagutzea, haien jatorri historiko eta sozial posibleak aztertuz, hainbat errealitate eta egoera ebaluatuz iritzi pertsonal kritiko eta arrazoitu bat sortzeko, eta beste jarduketa eraginkor batzuk sustatzea eta egitea, hainbat eskalatan,

pertsonen arteko eta talde sozial ezberdinen arteko harremanak hobetzeko, baita baliabide naturalak arduraz erabiltzeko ere.

9. Fenomeno sozialak gidatzen dituzten prozesuak eta mekanismoak identifikatzea, egitate sozial, politiko, ekonomiko eta kulturalen arteko harremanak aztertuz, ezagutza hori erabiliz egungo gizarteen bilakaera azaltzen duten kausen askotarikotasuna ulertzeko eta historiaren ikuspegi arrazoitu eta kritikoa eskuratzeko, herritar gisa hori hobetu ahal izateko.

10. Gizarte zientzietako baliabide kontzeptual, teknika eta oinarrizko lan prozedura bereizgarriak aplikatzea, eta alor horretako hiztegia erabiltzea, zehaztasunez eta zorroztasunez, lan monografiko txikiak eta banakako edo taldekako ikerketak eginez, Euskal Herriaren, inguruko esparruen eta munduaren jatorria eta bilakaera historikoa ikertzeko.

11. Taldeko lanak egitea eta eztabaida eta debateetan parte hartzea jarrera eraikitzaile, ireki, arduratsu, kritiko eta tolerantarekin, norberaren iritzia eta proposamenak ondo oinarrituz, desadostasuna eta elkarrizketa baloratuz gizakiaren eta gizartearen arazoak eta gatazkak konpontzeko beharrezko bide gisa, eta taldean lan egiteko teknikak garatuz, lorpen kreatibo komun bat lortzeko, pertsonaren eta taldearen interakzioa gailentzen den gizarte bateko integrazio positibo gisa.

12. Informazio geografiko eta historikoa eskuratzeko, ahozko informazioa, informazio grafikoa, ikonikoa, estatistikoa eta kartografikoa hautatuz eta elkarrekin lotuz, hainbat iturritatik eskuratutakoa, hedabideak eta informazio eta komunikazio teknologiak barne, sintesia egiteko eta, hala badagokio, lortutako emaitzak besteei komunikatzen jakitea, modu antolatua eta ulergarria.

Edukiak:

Eduki komunak

- Informazioa identifikatzea, eskuratzeko, biltzea eta berreskuratzea

- Informazio iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea (konparatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta sintetizatzea), buruz ikastea eta adieraztea (deskribatzea, definitzea, laburtzea, azaltzea eta abar).
- Informazioa baloratzea eta adieraztea (argudiatzea, justifikatzea eta abar).
- Ideiak sortzea, hautatzea eta adieraztea.
- Ideien, zereginen eta proiektuen bideragarritasuna planifikatzea eta aztertzea.
- Planifikatutakoa egikaritzea eta, hala badagokio, doitzea.
- Planifikatutakoa eta egindakoa ebaluatzea eta hobetzeko proposamenak garatzea.
- Lortutako emaitza komunikatzea.
- Pertsonen arteko harremanak eta komunikazioa garatzea (enpatia eta asertibotasuna).
- Taldeko ikasketako zereginetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Giza eskubideak eta konbentzio sozialak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Emozioak autoerregulatzea.
- Estilo kognitiboa autoerregulatzea.
- Ahozko komunikazioa, ahozkoa ez dena eta digitala autoerregulatzea.
- Jokabide morala autoerregulatzea.
- Motibazioa eta borondatea autoerregulatzea.

Prozedurak:

- Trebezia linguistikoak aplikatzea ikasgaia ikasteko: idatzizko eta ahozko testuen ulermena; hiztegi espezifikoak interpretatzea eta erabiltzea, eta ahoz eta idatziz modu egokian adieraztea.
- Alderdi geografiko, ekonomiko, sozial, historiko, kultural eta abarrei buruzko hipotesiak planteatzea, formulatzea eta egiaztatzea.
- Hainbat eskala, ezaugarri eta euskarritako (ohikoak eta digitalak) irudiak, planoak eta mapak irakurtzeko jarraibideak.
- Grafikoak irakurtzeko eta interpretatzeko jarraibideak.
- Eskuratutako informazio ekonomiko, geografiko, sozial eta kulturala bilatzeko, aztertzeko eta kontrastatzeko jarraibideak.
- Informazio geografikoko sistemen bitartez informazioa lortzeko jarraibideak.
- Informazioa hainbat helbururekin erregistratzeko eta tratatzeko teknikak.
- Askotariko dokumentu ofizialak irakurtzeko, interpretatzeko eta betetzeko jarraibideak.
- Sarean hainbat herrialderi buruzko informazio garrantzitsua bilatzeko jarraibideak.
- Eskuratutako informazioa modu egokian eta argudioak erabiliz ahoz edo idatziz komunikatzea.
- Askotariko iturriak erabiliz ikerketa eta/edo laburpen lan monografikoak egiteko jarraibideak, eta haiek modu egokian aurkeztekoak, hainbat adierazpen modu konbinatuz, IKTek ematen dituzten aukerak barne.
- Ezagutza soziala eskuratzeko eta komunikatzeko prozesuaren berezko testu generoak modu egokian erabiltzeko jarraibideak.

- Paisaia produktiboen osaeran inguruaren eta giza ekintzaren artean gertatzen diren interakzioak aztertzeko jarraibideak.
- Ingurumeneko arazoei, arazo ekonomikoei, politikoei... buruzko gaurkotasuneko gairen baten inguruko eztabaidak, kasuen analisiak edo arazoen ebazpenak egiteko jarraibideak.
- Egitate beraren inguruko informazio ezberdinen inguruko analisi kritikoa.

Jarrerak eta balioak:

- Baliabide naturalak egungo eta etorkizuneko gizateriaren ondare komun natural gisa baloratzea.
- Munduko aberastasunaren banaketa ezberdinaren aurreko jarrera kritikoa, eta pertsonen eta herrien arteko ezberdinkeria arbuioa.
- Printzipio eta erakunde demokratikoekiko errespetua.
- Giza duintasuna funtsezko printzipiotzat jotzea, eta giza eskubideak jotzea elkarbizitzarako oinarritzko arautzat.
- Herritarrek erakunde publikoetan parte hartzea baloratzea.
- Egoera txarrean dauden herriekiko elkartasuna.
- Ezberdinkeria, injustizia eta bazterkeria egoerak identifikatzea eta salatzea, egungo munduko pertsonen eta kolektiboen eragiten dietenak.
- Emakumeen aurkako bazterkeria eta indarkeria egoeren aurreko jarrera kritikoa.
- Baliabideak agortu egiten direla kontuan hartzea, haien kontsumoa arrazionalizatu egin behar dela, eta jarduera ekonomikoak lurraldean eragina duela.
- Elkarrizketa eta elkarlana baloratzea gatazkak ebazteko modu eraikitzaile gisa.
- Banaka eta kolektiboan modu ekitatibo eta jasangarrian kontsumoa arrazionalizatzen eta giza garapenean laguntzeko asmoa.
- Modu aktibo eta eraikitzailean parte hartzea talde lanak edo beste zeregin kolektibo batzuk eginez.
- Norberaren akatsak modu naturalean onartzea eta horietatik ikasteko asmoa.

Iragan historikoa Estatu modernoan

Egungo gizartearen oinarri historikoak.

Aro Modernoa

- Europako estatu modernoek ezaugarriak. Monarkia modernoak indartzea.
- Monarkia autoritarioak, parlamentarioak eta absolutuak.
- Europako Berpizkundearen ikuskera humanista. Horren ondorioak.
- Amerikaren aurkikuntza, esplorazioa eta konkista. Europarrek ezagutzen zuten mundua zabaltzea. Horren kausak. Juan Sebastian Elkano eta lehen mundu bira, Lopez de Legazpi, Andres Urdaneta eta abar. Euskaldunak Amerikaren konkistak eta kolonizazioan (Pedro Urtsua, Lope Agirre, Katalina Erauso, Juan Zumarraga eta abar). Lehen munduko sistema kolonialaren sorrera. Ondorio sozioekonomikoak Iberiar penintsulan.
- Aldaketak Nafarroako erresumaren historian. Gaztelako gerra eta konkista, eta erresuma independente gisa desagertzea. Behe Nafarroako erresuma mugatua.
- Erlijio gatazkak. Erreforma kristaua eta kontrarreforma katolikoa. Jesusen Lagundia: Ignazio Loiolakoa, Frantzisko Xabierkoa.
- Monarkia hispanikoa eta Amerikaren kolonizazioa, Europaren testuinguruan. Aldaketak munduko hegemonian: Espainiatik Frantziara, eta, jarraian, Holandara eta Ingalaterrara. Monarkia autoritarioak, parlamentarioak eta absolutuak.

Jardueren segida:

METODOLOGIA:

Metodologiatzat jotzen da ikasketa prozesua kudeatzeko hautatutako bidea edo estrategia, prozesu horretako elementu guztiak kontuan hartuta. Nola irakatsi galderari erantzuten dio.

Gaitasunetan oinarritutako hezkuntzaren ikuspuntua diziplina anitzeko ekarpenaren eta eskari sozioekonomiko eta pedagogikoen emaitza da, zeintzuek eskatzen duten hezkuntzak bizitzarako prestatzea eta ezagutzak transmititzetik harago heltzea.

Ez da soilik ezagutzaren edo ikasketaren teoriaren batean oinarritzen, baizik eta sustatu nahi den ikasketa motaren arabera aplikagarriak diren teoria guztietan. Adibidez, errepikapenez eskuratzen diren edukiak irakasteko eta ikasteko erabilgarria izango da inspirazio konduktista eta kognitibista (datuak, egitateak, prozedura algoritmikoak eta instrumentalak, jokabide batzuk). Aldiz, inspirazio konstruktibista eta soziokonstruktibista lagungarriagoa izango da kontzeptuak eta printzipioak irakasteko eta ikasteko eta, oro har, prozedurak asimilatzeke eta moldatzeko, metakognizioaren eta autoerregulazioaren prozesuen bitartez, testuinguruan kokatuta.

Oinarritzat hartuta ezagutzaren hainbat teoria aplikatzea bateragarria dela gaitasunen bidezko hezkuntzaren ikuspegian, gizakiak hainbat testuinguru kultural eta sozialetan ondo jarduteko prestatzea beharrezkoa da ikaslea bere bizitzako eta ikasketa prozesuko protagonista bihurtzea.

Konstruktibismoak dio ezagutza ez dela kanpoko objektuak zeharka jasotzearen emaitza, baizik eta subjektuaren jarduerarena. Subjektuak eraikitzen ditu bere ezagutzak, aurreko ezagutzak eta berriak kontrastatuz eta egokituz. Soziokonstruktibismoa konstruktibismoa ulertzeko modu bat da, eta planteatzen du hiru dimentsiok batera eta modu banaezinean hartu behar dutela esku eskolako testuinguruan ikasteko:

- Dimentsio soziala (S). Gainerako ikasleekiko eta irakaslearekiko interakzio sozialen antolakuntzarekin eta irakaslearen kontrolpean egindako irakaskuntza jarduerekin lotutako alderdiak dira.
- Dimentsio konstruktibista (K). Ikasketaren antolakuntzarekin lotutako alderdiak dira, ikasleak ezagutzen duenean oinarrituta bere ezagutza eraiki dezan kokatzen dutenak, ezagutza zaharraren eta berriaren arteko harreman dialektiko bat eraikiz.
- Dimentsio interaktiboa (I). Ikasketaren xede den eskolako jakintzaren antolakuntzarekin lotutako alderdiak dira, inguru fisiko eta sozialarekiko interakzio egoerak egokitzen dituen ikasketaren xedearen ezaugarrien arabera. Bestela esanda, ikasketa ez dute diziplinako edukiek baldintzatzen, baizik eta ikasleek jakintza jarduerak ebazteko erabiltzen duten egoerak.

Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan esku hartzen duten aldagaien artean, erabaki metodologikoetan eragina dutenen artean, alegia, gaitasunen bidezko ikuskeraren alderdi bereizgarri gisa nabarmendu ditugu honako hauek:

- Gaitasunez jardutea oinarritzen da egoera arazotsuak ebaztean, eskuragarri dauden baliabideak modu integratuan mobilizatuz.

- Eskolaren antolakuntzaren asmo nagusia ez da informazioa eta ezagutza transmititzea, baizik eta oinarrizko gaitasunak gararaztea.
- Eduki deklaratiboak, prozedurakoak eta jarrerakoak baliabideak dira, baina baliabide beharrezko eta ezinbestekoak egoera arazotsuak ebazteko.
- Oinarrizko gaitasunak garatzeko, benetako egoeretan oinarritutako jarduerak proposatu behar dira, ezagutza eguneroko bizitzako arazo garrantzitsuekin lotuz.
- Oinarrizko gaitasunen ikaskuntza garrantzitsua lortzeko, ikaslea modu aktiboan inplikatu behar da bilaketa, ezagutzaren ikasketa, esperimendazio, hausnarketa, aplikazio eta komunikazio prozesuan.
- Irakasleek gaitasunak garatzean duten funtzioa uler daiteke ikasleen ikaskuntzaren tutore izatea bezala; horrek berekin dakar haien ikasketa prozesuak diseinatzea, planifikatzea, antolatzea, sustatzea, ebaluatzea eta birbideratzea.

Gaitasunen ikuspegiak, ikasgelara eramatean, metodologia aldaketa bat dakar, besteak beste, modu erregularrean zereginka lan egitea baitakar, jakintza mobilizatu beharreko baliabidetzat jotzea, ikasketa arazoetan edo proiektuetan oinarrituta ulertzea, ebaluatzeko beste modu batzuk erabiltzea eta abar. Irakaskuntza lana, ezagutza irakasteaz gain, ikasleen testuinguruari lotutako egoera arazotsuak planteatzean datza, eduki deklaratiboak, prozedurak eta jarrerak mobilizatzea dakartenak. Gaitasunen ikuspegiak eraldatu egiten ditu irakasleen zenbait rol eta zeregin, eta rol aktiboagoa ematen dio ikasleari. Horrek, ezagutza transmititzetik eta buruz ikastetik gaitasunak garatzerako jauzi horrek aberasgarriagoa bilakatzen du irakaslearen zeregina. Irakasleak erraztaile edo bitartekari lana egiten du gehiago, gida edo bidelagunarena, eta, horretarako, “zereginak” edo ikasketa egoerak diseinatzeke gai izan behar da, arazoak ebazteko, ezagutza aplikatzeko eta ikasleen jarduera sustatzeko aukera emango dutenak.

A. Hasierako fasea:

Ikasleen aurreko ezagutza aktibatzerako bideratutako jarduerak. Jakin zer dakiten eta zer behar duten.

- Jarduera posibleen gomendioak:
 - Getarian egiten duten Elkanoren eta harekin etorri ziren gizonen lehorreratzearen antzezpeneren bideoa ikusi. Irakasleek badakite zer irudikatzen duen tradizio horrek?
 - Baskoniako bideoa ikusi (lehen minutuak), planteatutako egoera/arazoaren testuinguru gisa.
<https://www.eitb.tv/eu/bideoa/baskoniako-historia-bat-3-denboraldia/6976/177063/hego-pazifikoa--euska-herri-globala/>

- Pertsonaien irudiak jarri... gaiaren inguruan zer dakiten galdetu.
- Elkarlana:

Lanerako taldeak antolatzeko eta sortzeko, honako puntu hauen inguruko erabakiak hartu behar dituzte: Arduradunak izendatu. Ardurak eta lanak banatu. Lanaren xedea, beharrezko lanak eta lanerako metodoa definitu. Arauak jarri lan taldeen barruan eta haien artean. Erabakiak nola hartu. Denboraren kudeaketa (konpromisoak, epeak eta abar). Beharrezko espazioak eta materialak. Nola ebaluatu lana, taldekoa eta norberarena taldearen barruan.
- Taldearen lan kontatua sortzea, bakoitzaren konpromisoa adieraziz.

B. Garapen fasea:

- Jarduera posibleen gomendioak:
 - Ikerketa eta hedapen lan baten faseak zeintzuk diren landu.
 - Gaiaren inguruko informazioa bilatu hainbat informazio iturritan, adierazitako alderdien inguruan. Informazioa bilatzeko eta hautatzeko eta kontrastatzeko jarraibideak eman.
Hainbat informazio iturriren iradokizunak:
 - a) <https://www.eitb.tv/eu/bideoa/baskoniako-historia-bat-3-denboraldia/6976/177063/hego-pazifikoa--euskal-herri-globala/>
 - b) <https://www.eitb.tv/eu/bideoa/itxi-liburuak/6695/174006/elkano-eta-lehen-mundu-bira--garbine-biurrun/>
 - c) <https://elkanofundazioa.eus/eu/>
 - d) <https://itsasmuseoa.eus/eu/hezkuntza/aurkezpena>
 - e) “Jolastu eta ikasi Elkanorekin” hezkuntza jokoko PDF-ak.
- Informazioa kontrastatu, hautatu, ikerketa lana egiten hasi. Lan taldeen ezaugarrien inguruko beharrezko jarraibideak eman.
- Beharrezko jarraibideak eta argibideak eman iritzia emateari eta eztabaidatzeari buruz.
- **Eskuratutako informazioa osatu eta “Jolastu eta ikasi Elkanorekin” joko interaktiboaren bidez lortutako ezagutza ebaluatu (berezko joko gida bat dauka). Ikasleek, taldeka, helarazten zaien informazioa ikusiko dute, eta bidaiaren etapa bakoitzaren inguruan eztabaidatuko du (hartutako erabakiak eta horrelakoak), eta dagokien proba egingo dute.**

C. Aplikazio eta komunikazio fasea:

Jarduera posibleen gomendioak:

- “Elkano. Lehen mundu bira” filma ikusi. Gero ikasitakoaren inguruko eztabaida bat egin, egitateen inguruan, gertatutakoaren balioari buruz eta Elkanok izandako rolari buruz, baita hori guztia filmean islatzeko moduari buruz ere.
- Getarian Elkanoren inguruko ihes gela bat dagoela adierazi, bertara joan nahi badira ere... <https://elkanoescaperoom.eus/>

Informazio landua aurkeztea LHko 6.mailakoei. Haien curriculumak aipatu egiten ditu Elkano eta lehen mundu bira. Ahozko aurkezpen bat izango da, bideoz, aurkezpenez, horma irudiz eta abarrez lagundua, elkarlaneko taldearen iritzira, eta taldeak berak prestatutako pista jolasen bat edo galdera-erantzun jolasen batekin batera egingo da (“Altxorraren bila”, “kahoot”, “gymkana” eta abar), informazioa modu entretenigarrian eta ludikoan transmititzeko eta hedatzeko.

D. Orokortzea eta transferentzia:

Ikasleei bere inguru hurbileneko mugarri, tradizio edo pertsonaiaren bat aurkeztu, eta ikasitako lan prozedura ikerketa eta hedapen lan berri horretara bideratzeko eskatu.

Ebaluazioa

A. Adierazleak:

Ebaluazioaren funtzioak

Ikasleak ebaluazioaren funtzioa bada informazio garrantzitsua ematea haien prozesuaren bilakaeraren eta ikasketaren emaitzaren inguruan, bai baliabideak bai gaitasunak eskuratzeari lotutakoa, beharrezkoa da ebaluazioaren motak eta haien helburuak bereiztea eta, gainera, modu osagarrian planteatzea:

- Hasierako ebaluazioaren edo ebaluazio diagnostikoaren helburu nagusia da ikasle bakoitzaren hasierako egoera ezagutzeko, irakaskuntza eta ikaskuntza prozesu jakin bat hasteko, eta, horrela, hezkuntzako esku-hartzea ahalik eta doiena diseinatzeko. Ondorioz, ebaluazio horretarako erreferentzia une horretarako aurreikusitako gaitasun maila izan beharko da, eta, batez ere, gaitasunezko jarduteko baliabide gisa behar diren eduki deklaratioben, prozedurakoen eta jarrerakoen diagnostikoa frogatzen saiatu beharko da.

- Horretarako, ikasleen ebaluazio prozesualaren edo prestakuntzakoaren helburua da ikaskuntza prozesu osoaren garapenaren eta bilakaeraren inguruko informazioa ematea, bai edukiak eskuratzeari dagokionez bai horiek egoera espezifikoetan aplikatzeko gaitasunari, prozesu hori hautemandako indarguneetara eta ahulguneetara egokitzeko beharrezko erabakiak hartzeko eta ikasleei laguntzeko oztupoak hauteman eta berehala gainditzen, autoerregulazio prozesuan laguntzeko. Ebaluazio mota hori da garrantzitsuena ikaskuntzaren emaitzetarako; izan ere, prozesuak iraun bitartean amaierako ebaluazioa hezuramaitu aurretik hura egokia izaten laguntzeko prozesuan beharrezko zuzenketak egitean datza.
- Ebaluazio batutzailea edo amaierakoa, oro har, ikasleari nota jartzean amaitzen da. Nota hori adierazpen kodifikatu baten bitartez jartzen da, arauz ezarritako eskala estandarizatu batekin. Beraz, egiaztatzeko helburua du, eta, batzuetan, ziurtatzearena, objektiboa izan behar duena. Horregatik ezin da jo, ordea, egitate isolatuztat, ikaslearen gainerako ikasketa prozesuarekiko independentetzat, baizik eta une jakin batean horrek duen emaitzatat.

Ebaluazio irizpideak eta lorpen adierazleak

Eranskin honetan jasotako ebaluazio irizpideek eta lorpen adierazleek bi funtzio dituzte:

- Edukiak ebaluatzeke funtzioa

Ebaluazio irizpideak eta lorpen adierazleak dira baliabideen eskuratze maila ebaluatzeke erreferentzia, hau da, gai izateke moduan jarduteke beharrezko eduki deklaratioboena, prozedurakoena eta jarrerakoena.

- Gaitasunak ebaluatzeke funtzioa

Gaitasunak ebaluatu ahal izateke, integrazio egoera konplexuak behar dira, zeinetarako ez diren ikasitako baliabide guztiak mobilizatu behar, baizik eta xede horrekin sortutako egoera arazotsuak behar dituenak bakarrik.

Neurketa hori, komeni denaren arabera, modu kuantitatiboan edo kualitatiboan egin daiteke edo, hala badagokio, mistoan, biak hainbat neurritan konbinatuz. Ebaluazio kuantitatiboa globalagoa, intuitiboagoa eta subjektiboagoa da, kuantitatiboa, aldiz, analitikoagoa da, deduktiboa irizpideetan oinarrituta, eta kuantifikaziorako aukera ematen

duten tresnen bitartez. Ebaluazio mistoak aukera ematen du bi ikuspegi-tako alderdiak erkatzeko.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK ETA LORPEN ADIERAZLEAK

1.- Banaka edo taldean lan soilak eta ahozko aurkezpenak planifikatzea eta egitea, gizarte zientziekin lotutako gai buruz; informazio garrantzitsua modu antolatuan, zorrotzean eta ulergarrian komunikatzea; eta, horretarako, informazio eta komunikazio teknologiek eskaintzen dituzten aukerak erabiltzea.

- Askotariko informazioa maneiatzen, irakurtzen eta interpretatzen du, edozein euskarritan badago ere.
- Ikasi beharreko gaien inguruko hipotesiak eta galderak planteatzen ditu.
- Informazio garrantzitsua eskuratzen eta erregistratzen du, eta askotariko informazio iturriak eta lan esparruak baliatzen ditu.
- Modu sistematikoan eta zorrotzean hautatzen du zein informazio iturritara jo gai jakin baten inguruan lan egiteko.
- Euskarri egokiak aukeratzen edo sortzen ditu jasotako informazioa erregistratzeko.
- Modu egokian erabiltzen ditu sareko informazioa bilatzeko tresnak (bilatzaile orokorrak eta espezializatuak).
- Ondorioak aurkeztean informatikak ematen dituen aukerak erabiltzen ditu.
- Eskuratutako informazioa modu egokian helarazteko testu genero egokiena aukeratzen du.

2. Txostenak egitea eta eztabaidetan parte hartzea, eguneroko gai sozial gatazkatsuen inguruan, baita haien jatorriko historiko eta sozial posibleen inguruan ere, hedabideetatik edo beste iturri batzuetatik jasotako informazioa zorrotzasunez erabiliz, norbere iritziak tolerantziaz, errespetuz eta solidaritatez adieraziz.

- Bazterkeria egoerak, desoreka sozioekonomikoak, indarkeria kasuak, emakumeen aurkako indarkeria, gazteriaren arazoak eta abar identifikatzen ditu.
- Modu kritikoa eta tolerantzian azaltzen ditu aztertutako desoreketakoren bat arintzeko irtenbideak.
- Sentiberatasuna azaltzen du egoera txarrean dauden kolektiboak, eta diskriminazio eta indarkeria egoerak egotearekin, eta jarrera solidarioz heltzen die.
- Eztabaidetan onartu egiten ditu elkarrizketako arauak eta taldeko hitz hartzeak, ahozko lengoaia eta argudioak egoki erabiliz.
- Badaki zein balio duten berea ez bezalako beste ikuspuntu batzuek, enpatia jarrerak garatzen ditu besteen iritziekin eta eztabaidak ideia eta interes ezberdinak adierazteko inguru naturala iruditzen zaio.
- Proposatutako egoeren aldeko edo kontrako iritziak argudiatzen ditu, hala egoera errealetan nola simulatuetan.
- Bere ikuspuntuak defendatzen ditu, adi entzuten ditu gainerakoen arrazoiak, eta transakzioak egiteko eta gauzak adosteko gai da.
- Garbi adierazten ditu erantzun nahi dituen galderak, eta egindakoen inguruan ondorioak ateratzen ditu.

- Bere lana ondo antolatutako eskema bati jarraituz idazten du, eskuratutako datuetan oinarrituta.
- Eskuratutako informazioa modu egokian helarazteko testu genero egokiena aukeratzen du.

3. Estatu modernoan osatzean jazotako gertakari nagusiak bereiztea, eta monarkia hispanikoaren eta Espainiako inperio kolonialaren ezaugarri bereizgarrienak nabarmentzea, baita Euskal Herriarekin duen lotura eta euskal lurraldeen garapenarekin ere, Europako garai hartako testuinguruan.

- Aro Modernoan Euskal Herrian jazotako gertakari historiko nagusiak ezagutzen eta deskribatzen ditu, baita haren antolaketa politikoaren eta haren foruen ezaugarri nagusiak ere.
- Ardatz eta friso kronologikoak egiten ditu, aipatutako lurralde esparruetako bilakaera historikoa modu paraleloan jasotzen dutenak, eta ezarritako aldiko haien inguruko mapa historikoak interpretatzen ditu.
- Nafarroako konkistaren ondorioak azaltzen ditu.
- Amerikako konkistako euskaldun nabarmenen baten parte-hartzea azaltzen du. Ardatz eta friso kronologikoak egiten ditu, Aro Modernoko monarkia hispanikoari lotutako gertakari eta aldi historikoak islatzen dituztenak (Errege-erregina Katolikoak, Karlos V.aren Europako inperioa, Felipe II.aren inperio hispanikoa eta abar), eta garai hartako Europako historiako beste batzuekin lotzen ditu.
- Aro Modernoko ezaugarri nagusiak deskribatzen ditu: bilakaera ekonomikoa, antolakuntza soziala eta krisi ideologiko eta erlijiosoa.
- Aro Modernoaren ideia eta pentsamolde nagusi eta bereizgarriak ezagutzen ditu.
- Amerikaren aurkikuntzari eta kolonizazioari Aro Modernoko munduko beste leku batzuetakoari lotutako mapa historikoak interpretatzen ditu.
- Europako ikuspegitik Aro Modernoan mundua zabaltzearen kausak eta ondorio ekonomiko eta politikoak aztertzen ditu, eta egungo egoerekin lotzen ditu.

B. Tresnak:

- Talde kooperatiboetako lan saioen egunerokoa.
- Egindako ikerketa lana
- Egindako lanaren aurkezpena eta transmisioa.